

## KATUKA-KATUKA JOSTAILUEN ATZETIK

Gaur egun, geroz eta haur gehiago daude eserita egotetik oinez ibiltzera pasatzen direnak, eta horren ondorioz gerora arazoak ekar ditzakeenez, gure proiektuak hau ekiditea du helburu, haurrak katuka ibiltzera motibatuz eta beraien hanken eta begien arteko koordinazioa eskuratuz. Gure proiektua modu on batean aurrera eramateko, jostailuak egiten dituen enpresa batekin kontaktuan jarriko gara, azken finean, haurrak beraien lehen urteetan jostailu hauekin finkatuko dira eta. Jostailu hauei dagokienez, erakargarriak, arinak, dibertigarriak, koloretsuak, material desberdinekoak, maneiatzeko errazak... izan behar dira. Hala ere, ez dira oso garestiak izango, izan ere, beraien bizitzako adin tarte batean soilik erabiliko baitituzte, 8 eta 10 hilabete bitartean.

Jarraitzeko, bezeroak erakartzeko erabiliko dugun bidea telebista anuntzioak jarritz, irratan, web gune bat sortuz, egunkarietan artikulak jarritz eta abar izango da. Jostailu seguruak eskaini behar ditugu, izan ere, ez badira seguruak, ez dira salduko. Elkarlana, konpromezua proiektu eta taldearekiko, material egokiak, kohesioa eta rolak ondo banatuta egotea ezinbestekoak dira gure proiektuak funtziona dezan. Eta horrez gain, egin beharreko gauzarik garrantzitsuenak proposamenak egitea, merkatua aztertzea eta gauza guztiak ondo antolatuta edukitzea izango dira. Amaitzeko, gure proiektuaren kosturik garrantzitsuenak baliabide material eta pertsonalak, publizitatean inbertituko duguna, lokala, seguruak... dira.